

AUTOEBALUAZIOA (3. GAIA)

1. Ondoko ponpetatik zein da ohikoena laborategi mailan erabiltzeko?

- A Diafragmazkoak
- B Enbolodunak
- C Zentrifugoak
- D Peristaltikoak

2. Sistemaren karga edo ponpaketa karga ez da laneko emariaren menpekoa.

- A Egia
- B Gezurra

3. Mahatsak ponpatzeko oso aproposak dira:

- A Zentrifugoak
- B Enbolodunak
- C Peristaltikoak
- D Engranajezkoak
- E Torloju helikodailezkoak

4. Zelan murriztu ditzake ponpaketa beharren karga?

Aukeratu bat edo gehiago:

- A Elementu gehigarriak erantsiz
- B Balbula gutxiago erabiliz
- C Tutueriaren diametro konstantea erabiliz.
- D Balbula gehiago erabiliz

5. Ondoko ponpetatik zeintzuk dira garbitzeko errazenak?

- A Zentrifugoak
- B Lobuluzkoak
- C Enbolodunak
- D Diafragmazkoak

6. Sailkatu diafragma ponpa:

- A Errotatorioa
- B Peristaltikoa
- C Alternatiboa
- D Zentrifugoa

7. Ponpa zentrifugoez zein ezaugarri dituzte?

Aukeratu bat edo gehiago:

- A Sarreran hutsa sortarazten da eta xurgatzea ematen da
- B Ez dira elikagaien industrian asko erabiltzen



- C Errodetea kabitazioaren aurrean erresistentea den materialaz eginda dago.
- D Karkasako azalera handituz doa eta hortaz, presioa handitu egiten da.
- E Karkasako azalera handituz doa eta hortaz, energia zinetikoa murrizten da.

8. Ondoko zein faktorek laguntzen dute NPSHA handitzea edozein kasutan?

Aukeratu bat edo gehiago:

- A Tankearen ur maila handitzea
- B Tankea presiopean ezartzea
- C Ponpa ahalik eta altuera gorenean ezartzea
- D Ukondoak eta bestelako elementu gehigarriak murriztea
- E Likidoaren tenperatura txikitzea
- F Tutueriaren luzera murriztea
- G Altuera diferentzia handitzea

9. Ponpa bat hautatzerako orduan zein faktore hartzen dira kontuan?

Aukeratu bat edo gehiago:

- A Emari bolumetrikoa
- B Denak dira zuzenak
- C Garbiketa prozesua
- D Likidoaren propietateak

10. Likidoaren tenperatura zenbat eta altuagoa izan, eskuragarri dagoen NPSH-a txikiagoa izango da.

- A Egia
- B Gezurra

11. Nola ezartzen da laneko emaria?

Aukeratu bat edo gehiago:

- A Sistemaren karga eta fabrikatzailearen karga kontuan izanda
- B Sistemaren karga emari desberdinentzako kalkulatur
- C Fabrikatzaileak emana dator
- D NPSHR-aren arabera

12. Kabitazioak zein ondorio dakartza?

Aukeratu bat edo gehiago:

- A Sistema likido gabe gelditzera irits daiteke
- B Errotorearen gainazala apurtu daiteke
- C Likidoa kondentsatuko da soinu bortitza eraginez
- D Ponparen etekina murriztu daiteke
- E Denak dira zuzenak

13. Xurgatze guneko presioa lurrin presioaren balioa hartzen badu kabitazioa gertatuko da.



- A Egia
- B Gezurra

14. Kabitazioa saihesteko, eskuragarri dagoen NPSHa fabrikatzaileak ezarritako beharrezko NPSHa baino altuagoa izan behar da.

- A Egia
- B Gezurra

15. Ponpa mota hauetako desabantaila bat emaria pultsuka doala da, hau da, zenbaitzuetan ez da emari uniformeak lortzen.

- A Enbolodunak
- B Zentrifugoak
- C Torloju helikoidalezkoak
- D Lobuluzkoak